Para mejorar sus condiciones de vida debemos asegurar unos servicios sanitarios específicos, porque las mujeres tienen necesidades sanitarias específicas que no se contemplan muchas veces en nuestros centros ambulatorios, en nuestros hospitales, porque, generalmente, los gestores sanitarios suelen ser masculinos.

Arin noa, ez dudalako ezer utzi nahi tintontzian, eta hitz egin nahi dut hezkuntzaz eta hizkuntzaz, eta gure ideia nagusia da hezkuntza eredu publikoaren eta propioaren alde lan egingo dugula.

Guk uste dugu, eta hala da, hezkuntza dela gizarte baten oinarria. Hezkuntza ez da bakarrik gure ikasleei ematea formazio akademiko bat. Hezkuntzaren bidez burutu egiten dugu balioen transmisioa, gazteen formakuntza, indartearen eredia eta pertsonen beraien garapen pertsonala.

Hezkuntza, bestalde, pentsamenduaren sorkuntzarako eremu naturala da eta sorkuntza hori hizkuntza baten bidez egiten da, hitzen bidez pentsatzen dugu. Beraz, zer nolako hizkuntza erabiltzen dugun hezkuntzan hori ez da nolanhiko kontua, ez da kontu marginala.

Marko hirueleduna aspaldi ezarri zen, baina azkenengo Gobernu honetan beste koxka bat egin zaio horri eta hirugarren hizkuntzaren presentzia areagotu nahi izan denean, txokoratu nahi izan da euskeraren presentzia.



Eta guk horretaz esan behar dugu, guk defendatu egiten dugula eredu bat non ikasleak aterako zizkigun euskaldunak, lehenik eta behin, eta elehirudunak. Euskaldunak eta ele hirudunak. Eta hirugarren hizkuntza eta laugarrena sartzeak horrek ez duela berez ekarri behar euskarari eman behar zaion lehentasuna, hain zuzen hori, Euskal Herria, euskararen herrian bizi garelako.

Beraz, hezkuntzaren bidez sortu nahi ditugu belaunaldi euskaldunak, belaunaldi solidarioak, belaunaldi formatuak eta lagundu egingo dutenak gizarte solidarioago bat, gizarte libreago bat egiten.

Zeintzuk dira gure proposamen zehatzak? Ba, lehenengo eta behin uste dugu birpentsatu, ebaluatu egin behar direla azkenengo urteetan martxan jarri diren proiektu batzuk, esate baterako Eskola 2.0, esate baterako aipatu berri dudan marko hiru eleduna, esate baterako Bakerako Hezkuntza Plana.

Birpentsatu behar ditugu, berrikusi behar ditugu, ebaluatu. Ikusi zer nolako emaitza eman duten eta hortik abiatuta ikusi nola segi aurrera, hemendik edo handik, hiru eremu horiei dagokiela.

Aseguratu behar dugu hezkuntza komunitateak parte hartuko duela prozesuan eta behingoz, amaiera eman behar zaie murrizketei. Murriztu egin da, hau da 2010ean 41 miloi gutxiago eskaini zaio atal honi. 2011an, 217 miloi gutxiago eskaini zaio eta aurten, 24 miloi gutxiago. Hau da, murrizketa bat beste baten gainean, eta gainera ikasle kopurua igo egin da ikasgeletan. Hori ere murrizketa da.

Unibertsitateri buruz, zer esan. Murrizketak egunero ikusten ditugu. Irakasle ez egonkorrei ezin zaie egin kontratu egonkorra, hain zuzen ere, partida presupuestaria nahikorik ez dagoelako, aurrekontuek ez dutelako nahikorik...

Comienzo de la cinta nº 06





...ezegonkorrei ezin zaie egin kontratu egonkorra, hain zuzen ere, partida presupuestario nahikorik ez dagoelako, aurrekontuek ez dutelako nahikorik ematen.

Irakasleei egiten zaie kontratu partziala eta nahiago izaten da bi irakasle kontratu partzialak mantentzea irakasle bakarra kontratu osoaz baino. Zergatik? Askoz ere merkeagoa delako. Hau da, prekarizazioa ikusten dugu egunez egun. Eta gainera dagoen arazo ikaragarria. Ikerkuntzan murriztu egiten badugu, ez dugu galtzen bakarrik murrizketaren epean egiten ez duguna; galtzen dugu aurreko urteetan egin izan dena eta galtzen dugu hurrengo urteetan egin litekeena.

Ikerkuntza ez da bakarrik garai bateko kontua, continuum bat da eta hor etena egon ezkerro, galera ikaragarritzkoa da. Egin ez den hori berriz sartzeko urteak behar dira. Ezinbestekoa da murrizketa bat ere ez egotea ikerkuntzan gure herrian, hain zuzen ere, ikerkuntza horretatik elikatu egingo direlako gure eskolak eta elikatu egingo direlako gure tejido industrial hori. Ez da bakarrik ikasleen formazioa, ez da bakarrik irakasleen formakuntza. Inbertsioak eta ikerkuntzak eragina daukate absolutoki gure gizarte osoan.

Kalitatezko hezkuntza nahi dugu. Ez zaigu horrenbeste inporta bikaintasuna, baizik eta ekitatea. Ez dugu nahi eskola bat eta bakarra oso ona, bikaina eta hamaika erdipurdikoak. Ez, ekitatea behar dugu. Ekitatea eta guztiak izatea kalitatezkoak. Gure ikuspuntutik, ezkerren ikuspuntutik, kohesio soziala oso inportantea da. Hori da lehenesten duguna; kohesio soziala eta ez bikaintasuna.

En el campo de la lengua tenemos que hacer un balance negativo. En los últimos 15 años se ha avanzado en los niveles de conocimiento de la lengua, pero se ha estancado el índice de su uso. Hay que renovar el compromiso que esta Comunidad tomó hace 30 años. Esta legislatura debería de ser la legislatura del euskera. La X. Legislatura debería de ser la legislatura del euskera, porque queremos consensuar una nueva ley del



euskera, darle a la lengua un nuevo status para que le permitamos seguir desarrollándose. Porque en la medida en que no avanza, retrocede.

Queremos que sea lengua de comunicación, que sea lengua de uso y queremos que esas grandes carencias que tiene –y ahora estoy pensando en EITB–, se solucionen. EITB, un proyecto que no ha respondido a los principios para los cuales se creó. Se creó para integrar a las dos comunidades, para llevar el euskera a la comunidad vasco-parlante y se integró para desarrollar y fomentar la lengua y la cultura vasca.

Estamos viendo que ni da respuesta a la población euskaldún, ni tampoco ha conseguido que la población castellano-parlante se acerque a la lengua de la literatura vasca. Vamos a tener que repensar qué hacemos con la política de EITB, porque hoy en día sus trabajadores ni siquiera saben cuál es la política de EITB. Es más, sus trabajadores a veces se les contrata para horas. Tienen contratos de cinco, de seis, de diez horas. Eso no se puede permitir en un ente público estratégico como es la televisión pública vasca.

Tendremos que hablar eta hitz egin beharko dugu euskal sistema lege propioaz, Haurreskola Partzuergoaz. Hitz egin beharko dugu euskal curriculumaz. Hitz egin beharko dugu euskal Lanbide Heziketako Legeaz eta hitz egin behar dugu nola sartu euskara lanbide heziketan. Hitz egin behar dugu gazteei buruz.

Gazteen problemak ez dira puntualak, ez dira irlak; ez da orain bere hezkuntza, orain drogodependentzia, orain etxebizitza, orain langabezia. Gazteek behar dute globalitean sentitu. Gazteek beraiek hartu behar dute inizatiba autogestiogintzarako bultzada eman behar diegu. Beraiek hartu ditzatela erabakiak eta beraiek eman baliabideak beraiek egin dezaten.

Eta noski, atal hau ezin dut amaitu aipatu gabe la Ley LOMCE del ministro José Ignacio Wert, puesto que supone un enorme retroceso desde el punto de vista educativo. Tiene afán centralista, tiene afán uniformizador y





supone una agresión directa a los sistemas educativos de Galicia, de Cataluña y de Euskal Herria.

Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak eskatu behar dute LOMCE Legea erretiratzeko eta aplikatzen bada edo aurrera badao, ez aplikatzea erabaki beharko luke.

Partehartzea. Partehartzea guretzat helburu estrategikoa da.

La participación es la base de la democracia y sin ella no hay verdadera democracia. Es uno de los objetivos estratégicos de Euskal Herria-Bildu, buscamos y proponemos una nueva manera de hacer política para que todos los puntos a los que nos hemos referido sean trabajados conjuntamente con la ciudadanía.

Para ello proponemos buscar el consenso necesario para la puesta en marcha en este Parlamento de una comisión que tenga el objetivo de favorecer la participación. Queremos una democracia directa y participativa.

Eta horregatik proposatzen dugu herritarren partaidetzarako eskola bat sortzea, hain zuzen ere, erakundeetako arduradun teknikoak eta politikoak trebatzeko eta herrialde ezberdinetako esperientziak trukatzeko. Eta badaude beste asmo batzuk interesgarrienak izan daitezkeenak aipatuko ditudanak pentsatzen joateko.

Esate baterako, herritarren partehartze legea edo herri galdeketaren legea. Tresnak sortu behar ditugu partaidetza sustatzeko. Eta barkatuko didazue orain arinago banoa, denbora ikusita ez dudalako ezer utzi nahi.

Baina bai aipatu nahi dut atal honetan, puntu bat, nire ustez interesatea dena, hau da, partaidetzaren puntuan. Herri ekimenek galdu zuten, loteslearen izaera eta bai uste dut inportantea dela berriro ere errekeratzea hori.





Uste dugu inportantea dela aukera egotea herri ekimen bat dagoenean, aurrera eraman ahal izateko, eta horren bidez hartzen den erabakia loteslea izateko. Eta beraz, puntu hori aipatu nahi nuen.

Zer uste dugu eredu instituzionala eta administratiboari buruz? Eta hemen ere ideia nagusi bat plazaratu nahi dut, eta ideia hori da neurri transizionalak, bidekoak, bitartekoak hartu behar direla subirautzaren bidean.


Garai berrietara egokitu beharra dugu. Iharduera politiko dinamikoa egin behar dugu, iharduera gardena, hurbila eta eraginkorra. Kudeaketa eredugarria ekarri nahi dugu Legebiltzarrerara, uste dugu kontrol publikoa oinarria izan behar dela eta iruzurrarekin tolerantzia zero.

Lehen aipatu dut hasieran etxe honetako hormak kristalekoak bihurtu behar ditugu, kristalezko hormak egin behar ditugu Legebiltzar honetan, gardena, transparentea izateko. Sistema publikoa indartsua nahi dugu, sistema publiko bat kapaz dena erantzun azkar bat ematen eta ekidin nahi ditugu, saihestu nahi ditugu bikoizketak arlo guztietan; bai administrazioan eta administrazio bakoitzaren barnean, esan nahi dut eta administrazioen artean. Arintasun hori lortu nahi dugu; hartu-eman hori, erraztasun hori, ez izateko oztopo eta ez izateko garestiago gaur egun dauden bikoizketa horiek.

Eta beraz, horretarako uste dugu hausnarketa eta eztabaida egin behar dugula, eta batez ere hartu behar direla erabakiak modu kolektibo batean. Beraz, zein da gure proposamen zehatza?

Pues la propuesta concreta es revisar la LTH, la Ley de Territorios Históricos para eliminar duplicidades y para dotar de un carácter legal e institucional a las herramientas de coordinación interinstitucionales.

Y en esta misma línea queremos introducir racionalidad y transparencia en las empresas y sociedades publicas. Hay que sacar del cajón la Ley Vasca Municipal, consensuarla y aprobarla en esta legislatura, con el objetivo claro





de dotar a los ayuntamientos, ya no sólo de competencias sino también de los recursos necesarios para hacer frente a sus obligaciones.

Y finalmente, hay que recuperar las competencias que faltan. Que como digo, es de una manera transicional, es decir, mientras tanto, porque mientras conseguimos mayores cotas de soberanía, estaría bien poder disponer de más competencias que ahora no tenemos, como por ejemplo competencias en la seguridad social y competencias en la política penitenciaria.

Eta azken hausnarketa bat agin nahi dut amaitzeko. La riqueza de un país se mide por la calidad de vida de sus gentes, por el grado de cohesión social, por su sensibilidad ante los colectivos más débiles, por la capacidad que tiene para respetar los recursos naturales, por su grado de independencia y por las buenas relaciones con sus vecinos.

Estos son los indicadores reales que sirven para medir la calidad de un pueblo. Más fieles incluso que el Producto Interior Bruto, porque el crecimiento económico no es sinónimo de bienestar para el conjunto de la población. Es más, en épocas de crecimiento económico no se han reducido las desigualdades y los índices de pobreza. Y voy a poner un ejemplo: El PIB nos dice que la renta per cápita de la CAV, es de 31.000 euros, pero no dice que más de 100.000 personas no llegan a los 1.000 euros mensuales.

Es decir, que muchos tienen una renta inferior a los 12.000 euros, y otros, por supuesto superior a los 60.000. Así son las estadísticas, desfiguran la realidad. Y la realidad es que el indicador S80/S20 nos dice que en el año 2006 por ejemplo, los sueldos de los más ricos se multiplicaban por 4,2 respecto a los ingresos de los más pobres. Pero cuatro años más tarde no se multiplicaban por 4,2 sino por 5.5.

Os lo voy a decir de otra manera, según las estadísticas nos toca a 31.000 euros por cabeza, pero resulta que el 1,3 % de la población de la comunidad vasca posee el 44 % del Producto Interior Bruto. Y esto no ocurre



de una manera espontánea o natural, es la consecuencia de aplicar unas medidas económicas concretas.

Krisi ekonomikoa ez da berez gertatzen den zerbait. Ez da istripua, ez da meteorologia fenomeno bat, ez da kasuala, pertsona batzuek hartutako erabaki baten ondorioa da. Eta krisiari aurre egiteko ere erabakiak hartu behar dira. Nolako erabakiak hartu, horrek eragingo du edo krisian sakontzea, edo hari buelta ematea.

Espanian okerreko erabakiak hartzen ari dira, populazioa estutzen ari da defizit publikoa jaisteko. Erkidego honetan politika horiek kritikatu egiten dira bai, baina gero bete egiten dira. Eta murrizketak azkenean berdin-berdin aplikatzen dira. Ekonomia hondoratzen ari dena funtsean da finantziazio falta eta gastu publiko eza diru sarrerarik ez dagoelako.

Gastu publikoak bizkortu beharko luke ekonomia eta sektore estrategikoek aurrera egin beharko dute. Legebiltzarrean bi aukeren artean hautatu behar dugu gaur lau urtetarako gobernu burua aukeratzeko. Eredu bat da nik oraintxe aipatu dudana, beste eredu bat oraintxe entzungo dugu, eta ni seguru nago beste lehendakariak neurri zehatzak proposatuko ditugula krisialditik ateratzeko.

Neurri horiek kapitalaren aldekoak badira, gureak egin du. Kapitalak bilatzen du diru metaketa, kapitalak ez du errespetatzen amalurra ustiatu egiten du. Kapitalak egiten duena desoreka mantentzea, ez zaio oreka interesatzen, hain zuzen ere desorekan oinarritu egiten delako. Gure konpromezua da ezkerreko politika egitea, lehenago justuagoa delako.

Ondoren bakarrik ezkerreko politikak bilatzen duelako pertsona guztiguztien bizi kalitatea...

Comienzo de la cinta nº 07

...delako.





Ondoren, bakarrik ezkerreko politikak bilatzen duelako pertsona guztien bizi kalitatea. Hori da gure konpromezua. Hori da egiazko kalitatearen alde egitea, pertsoneri begira jartzea oraingo norabideari buelta emateko, politika eta ekonomia 180 gradu biratzeko.

Horregatik gaude hemen eta arrazoi honengatik guztiengatik lan egingo dugu zintzo eta sendo, lan egingo dugu buru askeak izateko, beste eredu ekonomiko bat inplementatzeko, hemen eta kalean, zuekin eta herritarrekin. Herri libreagoa, herri justuagoa, herri alaiago bat egiteko.

Eskerrik asko zuen pazientziagatik, zuen arretagatik eta lau, hiru, bi, bat segundo gelditzen zaizkit.

Eskerrik asko.

(Txaloak)

LEHENDAKARIAK: Eskerrik asko, Mintegi andrea.

Jarraian, Urkullu Renteria lehendakari gaiak dauka hitza bere gobernu programaren ildo nagusiak azaltzeko. Gehienez 90 minutu.

Urkullu jauna, zurea da hitza.

URKULLU RENTERIA jaunak: Legebiltzarburu andrea, mahaikideak, legebiltzarkideok, jaun-andreok, egun on denoi.

Eusko Legebiltzarraren X. legealdi honi aurreko bederatzietan bidea ireki eta jorratu dutenen oroimen eta aitormen batekin eman nahi diot hasiera. Bederatzi legealdi hauetan gu guztiontzat herri hobea egiteko ideala partekatu duten emakume eta gizonak, beren herriarekin konprometitu diren ordezkari publikoak, bere onena eman dute Euskadiren aurrerapen ekonomiko sozial eta kulturala bultzatzeko.





Legebiltzarkide jaun-andreak dira puntu honetara ekarri gaituzten proposamen eta egitasmoak landu, eztabaidatu eta adostu dituztenak. Herriaren zerbitzura egoteko bokazioa duten pertsonak besteen alde lana egin dutenak, hiritarrak politikatik hain urrun sentitzen diren une hauetan. Kasurik gehienetan legealdia amaitzean herriaren zerbitzura lan egin izanak ematen duen poztasuna sentitu dute eta, aldi berean, seguru aski, ez dute beren eskuzabaltasunaren neurriko esker onik jaso.

Gaurko honetan zerbitzu publikoaren garrantzia aldarrikatu nahi dut. Zentzu horretan, bokazio politikoa elikatzen duen interes komunitario eta kolektiboaren garrantzia. Ekimen politiko bat, bere egitekoa akordioak bilatzean oinarritzen duena, gutako bakoitzak apur batean amore emanaz denok izan dezagun aurrera egiteko aukera.

Denborak ematen digun ikuspegiarekin, une ona da gu baino lehen izan diren legebiltzarkide...

LEHENDAKARIAK: Urkullu jauna. Barkatu momentu baten.

Mesedez, kartelak gordeko dituzue? Mesedez. Eskerrik asko.

Urkullu jauna, jarrai dezakezu.

URKULLU RENTERIA jaunak: Eskerrik asko, legebiltzarburu andrea.

Gaurko honetan, berriz diot, zerbitzu publikoaren garrantzia aldarrikatu nahi dut, bokazio politikoa elikatzen duen interes komunitario eta kolektiboaren garrantzia.

Ekimen politiko bat bere egitekoa akordioak bilatzen oinarritzen duena, gutako bakoitzak apur batean amore emanaz, denok izan dezagun aurrera egiteko aukera.





Denborak ematen digun ikuspegiarekin une ona da –esaten nuen– guk baino lehen izan diren legebiltzarkideei oraingo Euskadi hobea delako errealitate ukaezina adieraztea, demokraziaren hasieran euskal erakundeak martxan jartzeko une hartan ezagutu genuena baino askoz hobea.

Euskadi hau ere bada bere gaitasun eta eskuzabaltasunaren fruitu, bere lan eta esfortzuen ondorio.

Gaur, X. legealdi honen hasieran, aukera hona da aurreko bederatzietan egon direnei eskerrik asko esateko.

Pertsona hauetako asko eta asko ez daude orain gure artean, eta oroimen berezia eskaini nahi diegu. Pertsona hauetako batzuek beren haragi eta odoletan sofritu zuten terrorismoaren bortxa eta indarkeria, heriotza, mina, etsipena eta (...)bidegabe eta onartezina.

Biktima guztiak, hildakoak, sufritu zutenak beren sinesmen eta ideiangatik jazarria izan zirenak. Biktima horiek guztiak merezi dute gaur gure oroimen eta aitortza. Legebiltzar honen konpromezua merezi dute, gertatutakoa sekula ahaztua izan ez dadin baina, batez ere, inoiz gehiago gerta ez dadin.

Nos encontramos en el inicio de un nuevo tiempo, un nuevo tiempo en que los ideales se presentan como ideas aquí, en este Parlamento elegido en democracia y libertad por la ciudadanía vasca de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

No hace un tiempo en el que nadie es perseguido o coaccionado por sus ideas, el tiempo en que se hace realidad que todas las ideas son libres. Nace la legislatura de las ideas en democracia y libertad plena, desde la democracia a través del diálogo, la negociación y el acuerdo, todas las ideas se pueden defender en libertad.

En esta Cámara está reflejada la pluralidad de nuestro país, estamos todos y entre todos podemos llegar a compartir nuestros ideales para, como resultado del debate y el acuerdo, hacerlos realidad.





Democracia, pluralidad, libertad, no hay excusas que valgan para rehuir el debate, no hay otro foro con más legitimidad democrática. No tiene sentido ya apelar a mesas de partidos ni puntos de encuentros extraños. Este Parlamento es la mesa, el foro en que las formaciones políticas vascas deberemos debatir y construir el presente y el futuro de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Éste es el punto de inicio de esta X legislatura, un auténtico reinicio para Euskadi.


Honakoa da Eusko Legebiltzar honen aurrean aurkezten naizen unea, lehendakari gai giza aurkezten naiz jaun-andrea agurgarrion aurrean, hurrengo lau urteotarako gobernu egitasmoaren leerro nagusiak aurkezteko.

Bidea hasteko arduraren neureganatzen dut, pairatzen ari garen egoera larria eskatzen dugun premiarekin eta, aldi berea, irekitzera goazen bide honetan gu guztiok elkartu behar dugula argi jakinik.

Jabetuta nago planteatzen ditudan helburuen garrantziak berak derrigortzen gaituela akordioa hitza irekitzen dugun legealdiaren aurre aldean idaztera.

Honek, jaun-andreok, akordioaren legealdia izan behar du, ezberdinen arteko akordioaren legealdia, halakoak garelako, ezberdinak gara, baina helburu giza partekatzen dugu Euskadiren abantzamendua, eraldaketa eta aurrerapena. Honek izan behar du akordioaren legegintzaldia, Euskal lur hau partekatzen dugun artean, guk guztion artean Euskadirentzako etxe berria eraiki dezagun.

Éste debe ser, el próximo cuatrienio, ésta debe ser la legislatura de los acuerdos transformadores y mi afán como candidato a lehendakari de este país es que así sea, que el acuerdo fructifique, que el acuerdo entre diferentes prospere, que el acuerdo de convivencia se instale entre nosotras y nosotros como mejor garantía de prosperidad para las nuevas generaciones.





Ésta será una de mis prioridades desde le primero al último día de esta legislatura. Es mi palabra.

Presentó hoy, ante esta Cámara, tres compromisos programáticos para la presente legislatura.

Uno. Un plan por la reactivación económica y un plan de choque por el empleo. Nuestro objetivo es generar crecimiento, crear riqueza y empleo, ubicando a la persona en el centro de nuestro compromiso, a través de una política social que garantice unos servicios públicos de calidad.

Dos. Un acuerdo por la paz y la convivencia, desde la memoria y la justicia, una apuesta para un futuro en concordia.

Tres. Un acuerdo por un nuevo status político, una vía para fortalecer el autogobierno vasco, sinónimo de más bienestar.

Nuestro país afronta tres retos decisivos en su devenir histórico, retos urgentes, importantes y trascendentes en el marco de esta legislatura.

Una vez presentados estos retos, plantearé los principios, valores y compromisos que inspiran el gobierno que propugno. Será un nuevo gobierno y también una nueva forma de gobernar para reforzar el compromiso público, el sentido moral de la política y del servicio a la sociedad.

El gobierno que planteo va a ser más ajustado, va a tener una estructura más reducida, y propongo simplificar también la red de sociedades y organismos públicos.

Queremos dar ejemplo para un proceso general de ajuste y reorganización del conjunto de la Administración Pública vasca que deseamos abordar esta Legislatura, incluyendo la revisión de nuestra





arquitectura institucional, que sustentan el Estatuto de Gernika, la Ley de Territorios Históricos y la ley municipal pendiente.

El modelo institucional vasco se ha mostrado eficaz durante las últimas tres décadas. Considero que la mejor forma de reforzarlo es proceder a su actualización, adecuación y reforma.

Hona hemen, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoak, Euskadik orain hastera goazen ziklo politiko berrirako izango dituen erronka eta konpromezuak.

Konbentzituta nago bizi dugun errealitate politiko, sozial eta ekonomikoaren diagnosi zuzen eta egokia dugula.


Gure inguruko errealitateak zailtasun ekonomikoak erakusten dizkigu. Europar herrialde askotan, Ongizate Estatuaren zutabeak kolpatzen ari den krisi larria, herri hauetan ezinbesteko ikusi dute erreskate ekonomikoa eskatzea, atzeraldian daude murgildurik, gorantz doan langabeziarekin eta hazkunderako neurriak martxan jartzeko inolako gaitasunik gabe.

Herrialde hauetan ere aurrikuspen ekonomiko ezkorrak dituzte datorren urteari begira. Hauxe dugu begien aurrean aurkezten zaigun errealitatea.

Egoera latza da, baina itxaropenez jantzitako mezua adierazi nahiko nuke, egoera honetan aukera berriak ere baditugulako.

Ziur nago, garrantzikoari erantzuna emango dion egitasmoa planteatzen ari naizela. Hiritarren eskari eta beharizanei erantzuna emateko. Konbentzituta nago, elkarrekin lortu egingo dugula Euskadik hurrengo urteotan aurre egin beharko dien erronkak gainditzea.

Aurkezpenari hasiera emateko, orainaldiari eskainiko diot begirada errealista eta zintzoa. Krisialdi ekonomiko luze, larri eta sakona bizi dugu.





Krisialdi ekonomiko hau krisi finantzieroak eragin du eta ondorioz ekarri du krisialdi instituzionala eta politikoa.

Krisi honek egunero planteatzen dizkigu egoera berriak, pertsona eta familiak kaltetzen dituelako azken bi hamarkada hauetan Euskadin ezagutu izan ez dugun eran.

Krisi honek langabeziaren gorakada itzela eta izugarria eragin izan du azken hiru urteotan, Euskal Autonomi Erkidegoan 171.000 gora lagun langabe ditugu.

Pertsona hauek Lanbidera joan dira, lanpostua bilatzeko ekimenean ari dira, beraz. Enpleguaren beherakadak oraingo bidea jarraituko du, are larriago dena, ez dago adierazle ekonomikorik 2013. urtean enplegua berreskuratuko delakoaren itxaropena emango digunik.

Une honetan bizi dugun krisiak egunetik egunera erakusten digu gure inguru hurbiletan pobrezia eta babes gabetasun latza bizi diren egoeren errealitatea.

Duela bost urte eskas, etxe berriarekin amesten zuten familiek, gaur egun kaleratzen amets gaiztoa sofritzen dute. Duela gutxi emantzipatu diren gazteak lanposturik gabe aurkitzen dira eta ez dute etorkizun hurbilean lanpostu berria eskuratzeko aukerarik antzematen.

Langile autonomoak, merkatariak, enpresa eta negozio txikietako arduradunak, kooperatibistak, nekazariak, abeltzainak, denak ari dira atzeraldi ekonomiko honen ondorioak pairatzen, egunero bizi dute kontsumoaren beherakada, eskaririk eza, eta kasu askotan, bere iharduerari bultzada berria emateko finantziaketa eta mailegua eskuratzeko ezintasuna ere bai.





Alargun eta pentsiodunek ikusi egin dute beren geroz ahalmen eskasa, are makalago egiten dela, prezioek gora egin dutelako eta hori zehar zergen igoera ezarri delako.

Pertsona horiek guztiek, profesional eta familia horiek guztiek guri galdetzen digute, guri begira daude. Batasuna eta ekimena...

Comienzo de la cinta nº 08

...pertsona horiek guztiek, profesional eta familia horiek guztiek guri galdetzen digute, guri begira daude.

Batasuna eta ekimena eskatzen digute. Pertsona horiek guztiek larrialdi ekonomikoa bizi dute eta egoera horretan dauden bitartean, guk egoera hori nazio larrialdi gisa biziko dugu.

Lehendakarigai izan dudan konpromezua eta, beraz, gure Gobernuaren konpromezua beti egongo da ardurari eta ekimenari lotuta. Gobernu guztien egitekorik garrantzitsuena da hiritar guztientzat ahal dugun ongizate mailarik handiena lortzea. Hauxe da neure buruari jarri diodan derrigorra: Bizitza egokitu zaigun aldi honetarako neureganatu dudan konpromezua.

Eusko Jaurlaritza berriak izango duen testuinguru ekonomikoa benetan larria da. Hala adierazi dute oraingo Jaurlaritzaren aurreikuspen ekonomikoek. Bost datu emango ditut.

2013. urtean Barne Produktu Gordinaren % 0,8ko hazkunde negatiboa emango da. Eusko Jaurlaritzak 700 milioi gutxiago izango ditu bere aurrekonturako. Zorpetze bidezko sarrerak 500 milioitan murriztuko dira defizitaren helburua betetzeko. Langabeziak hazten jarraituko du eta datorren urtean 16.000 lanpostu galduko dira. Eta gainera, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu erreserbak agortu egin dira.





